

3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK (8-12 ARGAZKIAK)

Ze ezaugarri dituzte argazkian agertzen diren pertsonak (adina, janzkera, sexua eta abar). Zer egiten ari dira? Nola imajinatzen duzue Europako meatzetan lan egiten duen pertsona baten itxura: bere lanerako arropa, erabili behar dituen tresnak, ezaugarriak etab. Argazkian ikusten dituzuen eta imajinatzen duzuenaren arteko desberdintasunik al dago? (alderatu, nahi izanez gero, azpian azaltzen zaizun argazkiarekin)

Kongoko Rubayako meatzariak lur azpian 50 metroko sakonerako galerietan egoten dira argi egokirik gabe. Oxigenoa ere ez da ondo iristen, horrek lana asko zailtzen du, oxigenorik gabe edozein mugimenduk esfortzu handiagoa eskatzen duelako.

Kongon mineralen erauzketara dedikatzen diren pertsona gehienak modu artisauan egiten dute (edo eskuz), lan baldintza oso zailtan. Segurtasun eta laneko tresna egokirik gabe, lanordu zehatzik gabe, soldata kaskarrekin eta adingabeen eskulanarekin kasu askotan. Lan baldintzak esklabutzaren oso antzekoak dira, ondorio larriekin, bai pertsonen osasunerako, baita ingurugiroarentzako ere. Honek guztiak hildako asko sortzen ditu, baita ondorio larriak osasunerako: itsutzea, arnas arazoak, lan-istripuak, besteak beste. Askotan ume txiki eta adingabeek ere egiten dute lan meategietan. Minerala zuzenean erauzten duten pertsonak gain, meategi inguruan lan egiten



3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK (8-12 ARGAZKIAK)

duten beste pertsona asko daude, hala nola zamaketariak eta garbitzaileak (gehienak emakumeak direnak) edo minerala erauzten duten pertsonen zerbitzuak ematen dietenak.

Egoera honi aurre egiteko badira hainbat ekimen¹. Aintzira Handietako eskualdeko Nazioarteko Konferentziaren ziurtagiri-sistemaren bitartez, bisitak egiten dituzte urtero meategietara, hiru koloreen bidez (berdea, horia edo gorria) horiek kalifikatzeko; koloreak esleitzen dira talde armatuen kontrolpean egotearen eta haurren esplotazioa gartzarearen arabera.


Errealitate hau gertuagotik ikusi ahal izateko, bideotxo hauek ikustera gonbidatzen dizuegu:

1 Europako Legedia eta Dodd Frank legediaren inguruko berri eta artikulo batzuk dituzue hemen:

- ALBOAN: "Gatazka-mineralen legeari buruzko behin betiko akordioa" <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/gatazka-mineralen-legeari-buruzko-behin-betiko-akordioa/>

- "Nueva legislación sobre minerales en conflicto, ¿una oportunidad perdida para la Unión Europea?", Justice et Paix Belgiar GKE-k eta 50 erakundeetatik gora sinatutako prensa oharra (Gaztelera) https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2017/03/CP-ConflictMinerals_JyP.pdf

- El País: "Trump y los minerales en conflicto" (Gaztelera) https://elpais.com/elpais/2017/03/10/planeta-futuro/1489161724_873110.html (Consultado 12 de enero de 2018).



3. MEATEGIETAKO LAN BALDINTZAK (8-12 ARGAZKIAK)

- **Bideoa:** “Iván Benítezek Rubayako meategietan egindako bideoa”
(Iturria ALBOAN) [Ikusi.](#)



ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO
www.tecnologialibredeconflicto.org



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN